

GIDA

Gsef

BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

Gizarte-ekonomia eta hiriak

**Tokiko garapen
inklusiborako eta
iraunkorrerako
balioak eta
lehiakortasuna**

**PROPOSAMENETARAKO
DEIALDIA**



Bilbao

www.gsef2018.org



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

GSEF2018, LABUR AZALDUTA

Seul hiriak gizarte-ekonomiako tokiko aliatuekin elkarlanean 2013an abiarazi zuen nazioarteko lehen konferentzia izan zen Gizarte Ekonomiaren Foro Globalaren abiapuntua. Halatan, nazioarteko konferentzia handi horren laugarren edizioa izango da GSEF2018a. 2014ko edizioa ere Hego Koreako hiriburuan egin zen, eta orduantxe sortu zen GSEF nazioarteko elkarte iraunkor gisa. Hain zuzen, gizarte-ekonomia tokiko garapen ekonomikorako funtsezko faktoretzat onartzen duten tokiko gobernuak eta gizarte zibileko eragileak biltzen ditu elkarte horrek. 2016an, Montreal hiriak eta Chantier de l'Économie Sociale elkarteak antolatu zuten Montrealen egin zen foroa. Ekitaldiak agerian jarri zuen tokiko gobernuen eta gizarte-ekonomiako eragileen arteko lankidetzak hirien garapenean duen balioa.

2018ko GSEF Bilbon, Euskal Herrian, egingo da urriko lehen astean, Bilboko Udalak antolatuta. Balioen eta lehiakortasunaren konbinazioa tokiko garapen inklusiboa eta iraunkorra lortzeko bidetzat erabiltzea izango da konferentziaren gai nagusia. Zehatzago, iraunkortasunean oinarrituta, enpleguak sortuz, bizi-kalitatea hobetuz eta gizarte-kohesioa eta gizarteratzea sustatuz, hiri eta eskualdeen lehiakortasuna bultzatu duten ekimenak aurkeztuko ditu GSEF2018k. Bestela esanda, hirien garapen inklusiboa eta iraunkorra sustatu duten ekimenak aurkeztuko ditu.

Ildo horretan, efizientzia ekonomikoa, gizarteratzea, garapen iraunkorra eta ekonomiaren funtzionamenduan eta hiriaren garapenean partaidetza handiagoa bateratzea lortu duten ikuspegiak eta esperientziak partekatuko dituzte partaideek 2018ko GSEFan.

Ekitaldiak mundu osoko 1.500 partaide baino gehiago biltzea espero da. Bereziki, honako hauetako kideak izango dira bertan:

- Tokiko gobernuak
- Ekonomia sozialaren eragileak
- Nazioarteko erakundeak
- Unibertsitateak
- Gizarte zibila

Era berean, gobernuen eta gizarte-ekonomiarekin lankidetzan aritzeko interesa duten sektore pribatuko eta gizarte zibileko erakundeen partaidetza ere espero da.

Eskualdeko eta tokiko gobernuak, politikak formulatzeko arduradunek, gizarte-ekonomiako erakundeak (hala nola kooperatibek), enpresa komunitarioek, gizarte-enpresek, kreditu- eta mutua-kooperatibek, gizarte-finantzek eta irabazi asmorik gabeko erakundeak hartu ahal dute parte GSEF2018an.



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

GSEF2018AREN HELBURUAK

- Gizarte-ekonomia hirian eta eskualdean garatzeko politika publikoak elkarlanean diseinatzeko jardunbiderik onenak partekatzea.
- Lehiakortasunaren gakoak integratzea, gizarte-ekonomiaren funtsezko balioak aintzat hartuta.
- Gizarte-ekonomiaren garapena ekarriko duten nazioarteko lankidetzak sustatzea.
- Tokiko gobernuen eta gizarte-ekonomiaren arteko lankidetzak-aukerak eta -erronkak identifikatzea.
- Gizarte-ekonomiaren zabalkundea eta tokiko garapenean duen eginkizunaren aintzatespena indartzea, batez ere eragile publikoetan, gizarte zabalean eta sektore pribatuan.
- GSEFa eta beraren eginkizuna betetzeko gaitasuna indartzea.

Tokiko eta nazioarteko bazkideen lankidetzan oinarritutako partaidetzako foro dinamikotzat sortu da foroa.

GAI-ESPARRUAK

Hauxe da foroaren gai nagusia: «Gizarte-ekonomia eta hiriak: tokiko garapen inklusiborako eta iraunkorrerako balioak eta lehiakortasuna».

Hiru ideia nagusiren inguruan egituratzen da gaia: balioak, lehiakortasuna eta garapen inklusiboa eta iraunkorra. Horiek Europan eta munduan gaur egun jorratzen den eztabaida nagusiarekin daude lotuta; izan ere, gizarte-ekonomian nahiz ekonomian beste era batera aurrera egiteko eta hazteko aukera errealtzat eta egingarritzat jotzen dira gizarte-ekonomia eta haren adierazpideak.

Balioak dira hazkunde-eredu berriaren zutabeak eta gizarte-ekonomiaren ekimenak elikatzen dituzten sustraiak; alegia, elkarren laguntza, autonomia, ekitatea, demokrazia, elkartasun ekonomikoa eta gizarte-ekonomiaren konpromisoa, ingurumena eta iraunkortasuna.

Beste alde batetik, lehiakortasuna gizarte-ekonomian txerta daitekeela ere frogatu nahi da, bere balioaren zati bat parametro horren arabera neurtzen baita. Balioak eta lehiakortasuna bateratzea edota, beste modu batera esanda, pertsonen eta lanari lotutako faktoreak kapitalaren eta haren errendimenduaren gaitasun jarriko dituen eredu ekonomikoa planteatzea da ideia nagusia. Gizarte-ekonomiak frogatu du gai delako tokian tokiko ekonomiaren hazkunde iraunkorrean oinarritutako eredu batek eskatzen dituen erronkei erantzuteko, eta, aldi berean, erantzun egiten diela gero eta askotarikoagoa, multikulturalagoa eta zaharragoa den gizartearen eskakizunei.

Ildo horretan, hauek dira GSEF2018aren gai-esparru nagusiak:

Gaia	Azpigaiak
Politika publikoak elkarrekin sortzea	<ul style="list-style-type: none"> • Tokiko gobernuen eta gizarte-ekonomiako eragileen lankidetzarako estrategiak • Erosketa publikoa eta klausula sozialak • Gizarte-ekonomia politika publikoetan • Gizarte-ekonomia politika komunitarioan • Gizarte-ekonomia Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren helburuetan • Gizarte-ekonomiaren portaera testuinguru kritikoetan: krisi ekonomikoan, krisi instituzionalean
Gizarte-ekonomiaren ekarpena lurraldearen eraldaketan	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzailtza eta gizarte-berrikuntza • Lurralde sozialki arduratsuak • Gizarte-berrikuntzarako ekosistemak • Gizarte-ekonomia eta herritarrak elkarlanean: eraldaketarako binomioa • Gizarte-ekonomiak gatazken osteko prozesuetan egiten duen ekarpena • Tokiko Garaperako Euskal Sistema • MONDRAGONen kontakizuna
Gizarte-ekonomiako erakundeak hazteko erronkak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte ekonomiko erakundeen nazioarteko ikuspegia. Finantzaketa-bideak, ikusgarritasuna eta arau-esparrua • Gizarte-ekonomiako erakundeen arteko aliantzen esperientziak • Funtsak eta beste tresna batzuk sortzea, gizarte-ekonomiako ekimenak sortzeko eta mantentzeko • Gizarte-ekonomiako erakundeen gobernantza-ereduen demokratizazioa • Erakundeen gizarte-balioaren monetizazioa. Interes-taldeetan oinarritutako ikuspegia
Lanaren eta enpleguaren etorkizuna: gizarte-ekonomiaren eginkizuna	<ul style="list-style-type: none"> • Lanaren balioa gizartean • Lan produktiboa/birproduziokoa binomioa • Teknologiaren sarrera eta enpleguen desagertzea • Hezkuntza eta gazteak, gizarte-ekonomiaren etorkizuna bermatzeko • Gizarteratzea/laneratzea eta gizarte-ekonomia • Enpresaren eraldaketa gizarte-ekonomiaren bidez

Gaien eta azpigaien deskribapen zehatzagoa izateko, bisitatu gure webgunea: <https://gsef2018.org/>



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

EKIMENAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Batzorde akademikoak lehenetsuna emango die proposatutako gaietara ondoen egokitzen diren eta hirien tokiko garapen inklusibo eta iraunkorra ahalbidetzen duten ekimenei.

Era berean, batzorde akademikoak kontuan hartuko du eragileen eta ekimenen aniztasuna (generoa, eremu geografikoa, erakunde mota, jarduera sektorea) aukeraketa egiteko garaian.

GSEF2018AN EKIMENAK AURKEZTEKO ERA

GSEF2018an ekimenen bat aurkezteko interesa dutenek inprimakia bete beharko dute proposatutako ekimenaren deskribapena eta guzti (1.000 hitz gehienez).

INFORMAZIO OSAGARRIA

Ekimena abian den proiektua da, Ekonomia Sozialetik hirien garapenerako ekarpena egiten duena Proiektua Ekonomia Sozialeko erakunde batetik erator daiteke, tokiko gobernu batetik edo eragile ugariaren arteko lankidetzatik.

Aurkeztutako ekimen guztietatik interesgarrienen aukeraketa egingo da foroaren programa ofizialeko saioetako batean aurkez daitezen:

- Saio bakoitzean hiru/sei ekimen bilduko dira; herrialde edo jarduera-sektore desberdinetatik eratorritakoak izango dira, baina gai komuna izango dute.
- Saioetarako aurrez ikusitako iraupena: Ordubeteko saioak eta bi orduko saioak egongo dira (tailer bakoitzean aurkeztutako ekimen guztietarako).
- **Ekimenak bidaltzeko azken data: 2018ko martxoaren 23a, ostirala** (gauerdian, Europa Erdiguneko orduan, UTC/GMT +01:00 (CET)).
- Hizkuntzak: Ekimenak frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz edo euskaraz aurkez daitezke. GSEF2018 lau hizkuntzako ekimena da.
- GARRANTZITSUA: ekitaldiaren www.gsef2018.org webgune ofizialaren bidez aurkeztutako proposamenak baino ez dira ebaluatuko.
- Aurkeztutako ekimenen artean aukeratutako eta baztertutakoen inguruko ebazpena e-mailez jakinaraziko da. Ebazpen horren jakinarazpena deialdi honetarako aurkezpeneko mugaegunaren ondorengo bi hilabeteetan egitea aurrez ikusi da.
- Aukeratuak izanez gero, ekimenak aurkeztu dituzten erakundeen ordezkariak foroaren hiru egunetara doako sarbidea izango dute eta GSEF2018ren



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

antolakuntzak ordainduko ditu hoteletako hiru egunen gastuak, eta garraio-gastuetarako bidaia-zorria ere prestatu du (hegaldiak eta abar).

- Bidaia-zorria eskatu nahi dutenek posta elektronikoko helbide honetara idatz dezakete: academic@gsef2018.org. Eskaeraren arrazoiak zehaztu beharko dituzte.
- Lineako inprimakia betetzeko arazo teknikorik izanez gero, bidali mezua info@gsef2018.org helbidera.
- Ekimenak aurkezteko bestelako zalantzarik baduzu, edota argibideren bat behar baduzu, idatzi academic@gsef2018.org helbidera.

Programa ofizialerako aukeratu ez diren gainerako ekimenak baloratu egingo dira poster formatuan horretarako egokitutako erakustokian erakusgai jartzeko.

Aurrez ikusitako gaietan oreka izateagatik eta aforo kontuak direla eta, idazkaritza akademikoak erreserbatuta du tailer edo poster formatuan azkenean aurkeztuko diren ekimenak aukeratzeko eskubidea.

Bilbon ikusiko dugu elkar!